

## **2017KO BAGILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA**

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2017ko bagilaren 29an, 7:00etan

### **BATZARKIDEAK:**

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

### **Zinegotziak:**

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna
- GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

EAJ-PNV taldeko JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO zinegotzia ez da bertaratu.

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehenakiritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

### **1.- 2017KO MAIATZAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2017ko maiatzaren 25ean egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori ago batez onartu dabe.

## **2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON ETA ALKATETZAREN 193/2017 DEKRETUA BERRETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

*138/2017.- Arriskutsuak izan daitezcan animaliak eukiteko lizentzia.*

*139/2017.- Arriskutsuak izan daitezcan animaliak eukiteko lizentzia*

*140/2017.- Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.*

*141/2017.- Txitulari eguna ospatzeko baimena.*

*142/2017.- Kontratu txikia esleitzeko ebazpena.*

*143/2017.- Txosnak iminteko oinarriak onestea.*

*144/2017.- Jaima bat iminteko baimena.*

*145/2017.- Jaima bat iminteko baimena.*

*146/2017.- Udaltzaingoan bitarteko funtzionario bat izendatzeko ebazpena.*

*147/2017.- Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.*

*148/2017.- Nominak ordaintzeko ebazpena.*

*149/2017.- Megafonia ixteko baimena.*

*149bis/2017.- Ur hornidurarako sare orokorraren hargunea egiteko lizentzia.*

*150/2017.- Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.*

*151/2017.- BFTren bazkaria eta jendaurreko ekitaldia egiteko baimena.*

*152/2017.- Behin betiko fidantza itzultzeko ebazpena.*

*153/2017.- Kontratu txikia esleitzeko ebazpena.*

*154/2017.- Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.*

*155/2017.- Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.*

*156/2017.- Uri hondakin solidoak batzeko eta garraiatzeko zerbitzu publikoaren prezioa finkatzeko ebazpena 2017ko apirilaren 1etik aurrera.*

*157/2017.- Hautaketa prozeduran parte hartzeko, onartutakoen zerrendea behin betiko onartzea.*

158/2017.- *Ekintza artistikoak egiteko baimena emotea.*

159/2017.- *Entzunaldia egiteko udal baimena.*

160/2017.- *Alaitasuna taldearen eguna egiteko udal baimena.*

161/2017.- *Bakioko Udala adiskidetze-ekitaldira eta, beharbada, horren ostean egingo dan judizino batera bertaratzeko ebazpena.*

162/2017.- *Kaseta bat kentzeko ebazpena.*

163/2017.- *Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.*

164/2017.- *Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.*

165/2017.- *Surf ekitaldia antolatzeke baimena.*

166/2017.- *Eskubaloiko ekitaldia antolatzeke baimena.*

167/2017.- *Komunidade batek ordaindu beharreko tasak fidantzatik atarateko ebazpena.*

168/2017.- *BTT antolatzeke udal baimena.*

169/2017.- *Komunidade bateri obra lizentzia emotea.*

170/2017.- *Alegazinoak ezesteko ebazpena.*

171/2017.- *Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.*

172/2017.- *Kultur Etxeko bideo gela alokatzeke ebazpena.*

173/2017.- *Ikastxiki egiteko udal baimena.*

174/2017.- *Fakturen obligazioak onartzea.*

175/2017.- *fakturen obligazioen ordainketa onartzea.*

176/2017.- *Komunidadeari obra lizentzia emoteko ebazpena.*

177/2017.- *Eskola jaia egiteko baimena.*

178/2017.- *Bagilaren 6ko 1332/17 epaiaren barri emotea.*

179/2017.- *Sabino Arana kaleko lurrazpian dagoan 97 zk. udalaren partzelaren erabilera Teodora Teresa Sanz Prenafeta andreari esleitzea.*

180/2017.- *Auto klasikoen topaketa egiteko udal baimena.*

181/2017.- *Epaimahaiaren proposamena onartzea, eta, beraz, horrek proposatutako lan poltsa onartzea.*

182/2017.- *Obligazioen ordainketa onartzea.*

183/2017.- *Surf txapelketa egiteko baimena.*

184/2017.- *“Busti Zaitetz” kanpaina egiteko udal baimena.*

185/2017.- *Minbiziaren kontrako kanpaina egiteko udal baimena.*

186/2017.- *Surf ekitaldia egiteko udal baimena.  
obra lizentzia emotea.*

187/2017.- *Barne erreforma bat egiteko udal ebazpena.*

188/2017.- *Bagilaren 13ko 1380/17 epaiaren barri emotea.*

189/2017.- *Birziklapenari buruzko kanpaina egiteko udal baimena.*

190/2017.- *Bizi Lore alkartearen jarduera antolatzeko baimena.*

191/2017.- *San Pelaio eguna ospatzeko baimena.*

192/2017.- *San Joan sua egiteko udal baimena.*

193/2017.- *Ikerketa prozesuan parte hartzeko ebazpena.*

Amets Jauregizar alkatea andreak, dekretu honeei buruzko azalpenak emon dauz:

142/2017 dekretua:

Aurrekariak: urigintza plangintza orokorraren berrikuspenaren aurrerapen agiriaren posizionamendu-estrategiaren oinarrietan, Printzipioen Dekalogoia eta hamaika erispide instrumental azaltzen dira, estrategia hori garatzeko. Koordinazino jarduerak oinarri horreen edukiei jagekoz.

Helburua: Bakioko Udalaren aldeko laguntza teknikoaren helburua hau da: Bakioko posizionamendu-estrategiari buruzko jarduerak koordinatzea eta bultzatzea, beti be oinarrien erispide instrumentalagaz bat etorri; izan be, horrek plan-prozeduraren planteamendua ezartzen dau. Horren bitartez, planifikazinoaren eta kudeaketaren arteko jarraipenari eutsi behar jako.

Edukia:

Oinarrien arabera, koordinazino laguntza teknikoaren helburuak honeexek izango dira:

- a) Eredu energetikoa
- b) Lau urtaroei turismo aldetik bultzada emotea.
- c) Lehenengo sektoreko lurraldea optimizatzea

153/2017 dekretua:

Herriko urigintza antolamenduaren plangintzaren berrikuspenaren barruan kontuan hartzeko, Bakioko irisgarritasun plangintzaren aldarazpena idatzi beharra dagoala eta, ondoko enpresei proposamenak aurkezteko esan jakezan, kontuan izanik, batetik, aldarazpenaren kostua 17.500 (BEZa barik) eurokoa izango dala, eta, bestetik, enpresa bakotzak proposatutako metodologia izango dala erispide bakarra udalak proposamena aukeratzeko orduan. Horrenbestez, enpresa bakotzak idazlana aurkeztu behar eban irigarritasun plangintzaren aldarazpena egiteko erabiliko eban metodologia zehaztuz.

**INGARTEK CONSULTING SL**  
**URAK BIDE TALDEA**  
**GEOTECH**

Hiru enpresok proposamenak aurkeztu ebezan ezkerro, Udal Aparejadoreak aztertu eta bere 2017/05/26ko txostenean ageri da URAK BIDE TALDEAREN proposamena dala udalaren beharrianetara ondoen egokitzen dana.

157/2017 dekretua:

Maiatzaren 9ko 126//2017ko dekretuaren bidez, udalean sortu daitekezan beharrianak estaltzeko, bai ordezkapenakaitik bai antzeko arrazoiakaitik, igeltseroen lan poltsa osotzeko oinarriak onartu ziran; era berean, interesdunek eskabideak aurkezteko, maiatzaren 19tik kontetan hasita, hamar egun baliodun epea zabaldu zan.

Horren ostean, aurkeztutako eskabideak aztertu ziran ezkerro, hauxe erabagi zan: hautaketa prozeduran parte hartzeko onartuen izangaien zerrendea behin betiko onartzea eta izangaiei dei egitea 2017/06/14an “Txakolingune” eraikinean azterketea egiteko.

Azkenik, lan poltsa osotu zan eta, daborduko, lan poltsatik hiru pertsona kontratau dira, udaleko lantaldean aritzeko beharrean.

178/2017 dekretua:

Maite eta Itziar Bilbao Martín ahizpak hainbat urtetan aritu izan dira jubilatuen egoitzan beharrean. Jubilatuen alkartearen eta udalaren aurka lan-arloko epaitegietan helegiteak aurkeztu ebezan, bakotzak bere aldetik, eta, azkenik, epaitegiek, bai Itziareri eta bai Maiteri be arrazoa emonaz, udalaren kontrako epaiak kaleratu dauz, esanez udalak bost eguneko epean behargin modura hartu edo, osterantzean, kalte-ordainak ordaindu behar deusela:

Udalak, pertsona horreen bien kasuan, suplikazio helegiteak aurkeztu ebazan arren, lan-arloko epaitegiek atzera bota dauz. Ondorioz, udalak pertsona horreei jagokezan diru kopuruak ordaindu dauz, epaitegiak daukan kontu korrante baten sartuz.

189/2017 dekretua

Bagilaren 25ean, garagarrilaren 10, 14, 20 eta 24an eta abuztuaren 7, 20, 22 eta 28an Enderika enparantzan, zaborrontzien eta erreziklajearen arloan kontzientzia hartzeko jardunaldiaren barruan, Bizkaiko Foru Aldundiak nagusiek eta umeek erabilteko puzgarria dan karpea eta foodtruck ipiniko dauala eta, Alberto Iturburu Herrero jaunak, MORIWASE enpresearen izenean, hori bideratzeko 2017/06/1eko baimena eskatu eban eta dekretu horren bidez emon egin jako.

193/2017 dekretua:

Bakioko Udalak “Paz con Dignidad” elkarteak, REASk eta Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz ikerketa lantaldeak dinamizatutako “*Korporatibizatu gabeko euskal udalerritarako trantsizioa. Tokian tokiko aukera ekonomikoak demokrazia zabaltzeko: Hegoalde globaletik izan beharreko ikuspegi inklusiboa*” proiektuan parte hartu nahi du. Egitasmo hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak 2017. urteari begira egindako deialdira aurkeztuko da.

Ekimen hau REAS-Euskadi erakundearen “*Tokian tokiko politika publikoak ekonomia sozial eta solidarioari begira*” proiektuaren bigarren fasea da, emaitza gisa “*Lurraldeak ekonomia solidariotik eraldatuz*” gida eman zuena.

Gauzak horrela, alkatetza honek, indarrean dauden legezko xedapenek ematen dizkioten ahalmenetan oinarrituz, honakoa ebatzi du:

**1.- Dekretu honen azalpen zatian aipatutako ikerketa prozesuan parte hartzea, batik bat horretarako aurreikusitako mintegietan parte hartuz, eta prozesu horren ondorioz sor daitezkeen proposamenak eta gomendioak bultzatzea erakundearen jarduketa eremuan, horretarako baldintzarik izanez gero.**

Zinegotziek dekretu guztien jakitun izateaz ganera, 193/2017 dekretua aho batez berronetsi dabe.

**3.- UDALAREN HERRI JABARIAREN BAKARREKO ERABILEREAGAITIKO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGAITIKO TASEA ARAUTZEN DAUAN ZERGA ORDENANTZEAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

Amets Jauregizar alkate andreak, gai honeri buruz hauxe azaldu dau:

Herriko jaietan edo urteko egun berezietan jendearentzat barrakak erabiltea ahalik eta ekonomikoagoa izan daiten, ordenantza horri paragrafo hau gehitzea proposatzen da:

*Herriko jaiak edo egun bereziak (Aste Santua...) dirala eta, erabilera publikoko lurrean postuak, barrakak, salmenta kasetak, ikuskizunak, erakargarritasunak edo aisialdikoak instalatu ezker, hitzarmena egin ahalko da Azokalarien Alkartearaz.*

Horrenbestez, zinegotziek gaiaren jakitun dirala kontuan hartuz; izan be, informazio batzordean aztertu da eta, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

**1.- Udalaren herri jabariaren bakarreko erabilereagaitiko edo aprobetxamendu bereziagaitiko tasea arautzen dauan zerga ordenantzaren aldarazpena behin-behinean onartzea.**

**2.- Aldarazpenaren espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta biharamunean indarrean sartuko da.**

#### **4.- AURREKONTUAREN ALDARAZPENA KREDITUEN TRANSFERENTZIAREN MODALIDEAN ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

Kreditu transferentziaren nondik-norakoa:

##### **KREDITUAK TRANSFERITZEKO PROPOSAMENA**

Kredituak transferitzen diren gastu partidak (bajak)

**2023ko AURRERAKOEN FINANTZAKO PROPOSAMENA**

Gastu partidak konzeptuak	Elkartzaren konzeptuak <b>FRANTZESKO</b> Balcidat	Budajako kredituak	Ordira	Ordira
<b>33.27.53.03</b>	<b>Ota</b>	<b>17.000,51 €</b>	<b>0,00 €</b>	<b>17.000,51 €</b>
		<b>17.000,51 €</b>	<b>0,00 €</b>	<b>17.000,51 €</b>

Handitzen diren kredituen gastu partidak (altak)

Aurrerakoen partidak	Konzeptuak	Kredituak		
		Guztira	Aldizkari guztira	Behin-behineko
<b>342.623.00.01</b>	<b>Makina</b>	<b>10.000,00 €</b>	<b>3.500,00 €</b>	<b>13.500,00 €</b>
	<b>Talde politikoaren diru-laguntza</b>	<b>0,00 €</b>	<b>4.666,00 €</b>	<b>4.666,00 €</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>0,00 €</b>	<b>8.166,00 €</b>	<b>8.166,00 €</b>

Amets Jauregizar alkate andreak, aldarazpen horrerri buruzko azalpenak emon dauzan ezkerro, bai eta informazino batzordean aztertu dan ezkerro be, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau: **2017 ekitaldiko udal aurrekontuari buruzko 4. aldarazpen espedientea onartzea, beti be kreditu transferentziaren modalidadean**

**5.- URIBE BUTROEKO ZERBITZU MANKOMUNIDADEAK ETA BAKIOKO UDALAK SINATU BEHARREKO HITZARMENA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ, BETI BE KIROL INSTALAZINOAK ETA JARDUERAK ERABILI AHAL IZATEKO.**

Amets Jauregizar alkate andreakl hitzarmenari buruz adierazpen hau egin dau:

Hitzarmenaren ondorioz Uribe-Butroeko Mankomunidadea osotzen daben udaletako herritarrek Bakiotarren eskubide bardinak izango dabezala Bakioko kiroldegiko instalazinoak erabilteko eta bertan antolatzen diran jardueretan parte hartzeko orduan, eta, alderantziz, bardin gertauko dala Bakiotarrek Uribe-Butroeko Mankomunidadea osotzen daben udaletako kiroldegietako instalazinoak erabilteko eta jardueretan parte hartzeko orduan be, esaterako, zerbitzuak hartzeagaitik edo jardueretan parte hartzeagaitik ordaindu beharreko tarifen zenbatekoei jagokonez.

Zinegotziak hitzarmenaren edukinaren jakitun diran ezkerro, eta tramitatutako espedientea kontuan hartuz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

**1.- Uribe Butroeko Zerbitzu Mankomunidadeak eta Bakioko udalak sinatu beharreko hitzarmena onartzea, beti be kirol instalazinoak eta jarduerak erabili ahal izateko, eta hitzarmena akta honeri eranstea.**

**2.- Alkate andreak hitzarmena sinatzea, udalaren legezko ordezkaria dan aldetik, beti be toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1085 legearen 21.1.b) artikuluaaren arabera**

**6.- BIDE ETA TOKI PUBLIKOETAN MERKATARITZA- HELBURURIK BAKO PUBLIZIDADEA ZELAN IMINI ARAUPETU DAUAN ORDENANTZEA DALA ETA, ERABAGIA HARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

Ordenantza horren gauzapena dala-eta informazino batzordeetan eztabaida egon dala kontuan hartuz, gaia udalbatzarrerara ekarri da, honek ondo deritxon erabagia hartu daian.

Hortaz, Amets Jauregizar alkate andreak, dino:

Gaur egun, bide eta toki publikoetan merkataritzaren aldetik helbururik bako publizidadea zelan imini arautzen dauan udal ordenantzea dago; eta, horrenbestez, indarrean egon behar da harik eta udal erabagiren edo udalaren gaindiko araudiren batek



indargabetzen ez dauan bitartean. Beraz, ordenantzea aplikatzeko erabagia hartzea antzua da, aplikatu beharra dagolako legeak horretara behartzen dau-eta.

Hortaz, alkate andreak hauxe proposatu dau: udalbatzak konpromiso honeek hartzea:

- *Indarrean dagoan ordenantza aurrean dala, bidezkoak diran aldarazpenak eta hobekuntzak zehaztu eta, ondorioz, ordenantza barri bat landu.*
- *Ordenantza hori Bakio Eraiki informazino batzordean lantzea.*
- *Herria garbi mantentzeko ahaleginak egitea.*

Gai horren ganean zinegotziak hitzarmenaren edukinaren jakitun diran ezkerro, eta tramitatutako espedientea kontuan hartuz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), alkate andrearen proposamena onartzea erabagi dau:

## **7.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Aitor Apraiz zinegotziak, EAJ/PNV taldearen izenean galdetu dau kiroldegian zerbitzua ia zelako egoera dagoan, bai ikastaroen aldetik, bai finantzabidearen aldetik, bai bazkide kopuruaren aldetik, eta abar.

María Isabel Barturen zinegotziak dinotso kontzesiodunaren 2017ko apirileko txostena dagoala, ganera herriko web orrian. Enpresek txostena hiru hileroko aurkezten dau, eta bertan bazkide kopuruaren barri, eta abar, emoten da.

Egoitz Abio zinegotziak dino Eusko Jaurlaritzak kaleratu berri dauala ebazpena, adierazoz epea zabaldu dala formazino ikastaroetarako dirulaguntzak eskatzeko.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoenez, alkate andreak batzar hau 19:45ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria